

## BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1086

*AGINDUA, 2022ko otsailaren 23koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2022. urtean gehienez emango diren diru-kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2022. urterako dagokion aurrekontu-muga.*

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean honako baliabide hauek arautzen dira: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoerak arintzekoak, eta herritarren gizarte-eskubideak beneratzen baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea erraztekoak; baliabide horien artean daude gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL).

Larrialdiko laguntzaren kontzeptuaren gakoa da, hain zuzen ere, kanpoko edo ustekabeko arrazoiak tarteko, une jakin batean (aldi baterako) baliabide ekonomikorik ez izatea edo urriak izatea premia larriko egoera bati aurre egiteko. Egoera horiei erantzun egin behar zaie herrialdean dagoen ongizatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarrerak bermatzeko errentaren laguntzen gehieneko muga arabera bizimoduari eutsi ahal izateko.

Ustekabeko gertakari batek eta aldizka dirulaguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdiko egoera ekonomikoetara erantzun nahi zaie. Pertsonen bizitzan zehar, egoera jakin batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Lehen mailako gabeziak edo eskasiak dakartzaten egoerak ekiditeko baliabide aringarri bezala erabiltzen dira GLLak.

Laguntza hauek emateari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 50.1 artikulua xedatzen duenez, GLLak emango dira gizarte-zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela egiaztatuta eta gero, eta helburu horretarako kontsignatutako kreditua badago.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak onartu ala ukatzea eta ordaintzea. Horretarako, udalek alde aurretik jakin behar dute urtean zenbateko diru-kopurua erabil dezaketenez gehienez, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean laguntza horietara zuzendutako guztizko aurrekontu-esleipenaren barruan.

Bestalde, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 49. artikulua zerrendatzen ditu GLL gisa emandako laguntzen zenbatekoak finkatzeko aintzat hartu beharreko irizpideak. Zehazki, 1. paragrafoan jasotzen da inoiz ere gainditu ezin izango den kopuruetako bat, hau da, orokorrean aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko araudi bidez finkatutako gehieneko diru-kopurua. Legezko aurreikuspen horretan oinarrituz, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denez, urtero zehaztuko dira, agindu baten bidez, berariazko gastu bakoitzari orokorrean gizarte-larrialdietarako laguntza gisa urtean gehienez emango zaizkion diru-kopuruak.

Aurrekoa esanda, adierazi behar da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 3. zenbakian xedatzen dela gizarteratzea gizarte-babeseko hainbat sistema eta politika

publikok partekatzen duten helburu bat dela; horien artean dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, lehen aipatutako helburua lortzen lagunduko duena, dagozkion xedeen eta egitekoen esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen denez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta; sistema horren funtsezko helburua, besteak beste, da larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonalak eta familiarrak prebenitzea eta horiei erantzutea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.n) artikulua arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkio, besteak beste, gizarte-ongizateari eta gizarte-zerbitzuari buruzko egitekoak.

Gauzak horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 legean ezarritakoaren arabera, gizarte-larrialdietarako laguntzetarako 27.000.000 euroko ordainketa-kreditua dago Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokion 21. Zerbitzuko 3123 aurrekontu-programan, eta, COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriei buruzko 1229 aurrekontu-programan, beste 10.000.000 euro gehitu dira, 21 zerbitzurako (Gizarte Zerbitzuen zuzendaritza) laguntza horietarako; laguntza horiek agindu honen bidez esleitzen dira.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen dekretu arautzaileak ezartzen du programara bideratutako urteko baliabideak udalei banatzeko eta transferitzeko prozedura. Baliabideen banaketa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero, GLLen zenbatekoak ordaintzeko beharrezko baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

b) Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordeak horiek aztertu ondoren, gizarte-zerbitzuetako eskumena daukan Eusko Jaurlaritzaren sailak irizpideak urtero zehaztuko ditu, beharrezko adierazleei begira batez ere, finkatzeko nola banatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua autonomia-erkidegoko lurralde historikoen eta udalerrien artean.

c) Erreferentziako irizpideak aplikatzeko, udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko da, eta horren berri emango da EHAAn urtero argitaratuko den agindu baten bitartez.

d) Erreferentziako irizpideen aplikazioa oinarri harturik, udal bakoitzari zein aurrekontu-muga dagokion zehaztu ondoren, zenbateko hori transferituko zaio udal bakoitzari. Transferentziak hiru hilean behin egingo dira.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta, eta horretarako kontuan hartuz udalek bidalitako dokumentazioa.

Prozedura hori aplikatuz, banaketarako irizpideak ezartzeko eta aurrekontu-mugen gehieneko zenbatekoak zehazteko aginduak argitaratu dira urtero. Gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak banatuko dizkie udalei, non eta horiek ez duten beste prozedura bat adostu dagokien foru-aldundiarekin edo mankomunitateen bidez, bat etorri Gizarte-larrialdietarako laguntzen dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak gihitutako bigarren xedapen gehigarriarekin, zeinak aurreikusten baitu udalerrria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen partaidetza, eta ahalbidetzen baitu GLLak kudeatzen dituzten mankomunitateei eta foru-aldundiei laguntzak zuzenean ordaintzea, betiere udalek mankomunitateen bidez

partekatutako kudeaketa-formulak erabiltzen badituzte edo aldundiei eskuordetu badiote prestazioa ematea.

Horregatik guztiagatik, eta Lan eta Enplegu Sailak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren esparruan, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak, gizarte-zerbitzuen esparruan, dituzten eskumenak baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUGU:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2022ko ekitaldirako gizarte-larrialdietarako laguntzetan (GLL) bildutako berariazko gastu bakoitzari orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatzea eta laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari urte honetan dago-kion aurrekontu-muga zehazten da.

##### 2. artikulua.– Urteko gehieneko zenbatekoak.

1.– 2022rako, honako hauek dira gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetzaren unitate bakoitzeko (aurrerantzean, BU), aurreko artikuluan aipatutako berariazko gastu bakoitzera bideratuak:

###### a) Alokairu-gastuak:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLL eskatu duen BU bakarrek etxebizitza koerrentatu edo azpierreantatu bada, hilean 275 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezingo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, koerrentagatik edo azpierreantagatik ordaindutako prezioaren % 70.

a.2.– Etxebizitza koerrentatu edo azpierreantatu bada, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarreko araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetzaren unitateen kopuruarekin zati-tuko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzako hilean 137,5 euro emango da gehienez, eta bien artean ezingo dute gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

a.3.– Etxebizitzaren ostatu- edo apopilo-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin ahalko dira, lehen esandakoaren arabera, eta hilean 137,5 euroko laguntza emango da gehienez.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 275 euro emango da gehienez, muga bizikidetzaren unitateko. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.

b) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik hilean 250 euro emango da gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

c) Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eragindako energia-gastuengatik, urtean 1.500 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 750 euro gehienez.

d) «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzeko instalazioak egiteko gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BU baldin badira, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

f) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuengatik, urtean 900 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450 euro gehienez. Kontzeptu honek honako gastu hauek barne hartzen ditu: ura, zaborrak, estolderia, ondasun higiezin gainera zergari dagozkionak –ondasunak landa- zein hiri-eremuak izan– eta jabekideen erki-degoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.

g) Bizikidetzaren unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarrizko premiei buruzko gastuengatik, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek berdintzen ez dituztenean, urtean 1.850 euro gehienez.

h) Aurretiko zorpetze-gastuengatik, urtean 3.000 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 1.500 euro gehienez.

Hargatik eragotzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, a), b), c), d), e), f) eta g) apartatueta aipatutako kontzepturen batengatik aurretik ezarritako zorreatatik gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru-kopuruak ezin izango dira kasu bakoitzean aipatutako apartatueta kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko diru-kopuruak baino handiagoak izan.

2.– Nolanahi ere, artikuluko honetako 1. paragrafoko a), b), c), d), e) eta f) apartatueta aipatzen diren kontzeptuengatik GLLak jasotzea ez da bateragarria hauekin: Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (aurrerantzean, EPO); Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean (aurrerantzean, EPE) aurreikusitako etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzera bideratutako etxebizitzako prestazio ekonomikoa; Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzeko eta iragartzeko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko apirilaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzak; eta etxebizitza libreen alokairurako beste laguntza batzuk, COVID-19ren ondoriozko osasun-krisiaren ondorioz 2022ko ekitaldian aurreikus daitezkeen kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko.

Artikulu honen 1. paragrafoko a) apartatuan adierazitako gastuetarako GLL jasotzea ez da bateragarria diru-sarrerak bermatzeko errentaren ezein modalitatearekin (aurrerantzean, DSBE).

3.– Eskubide bakoitzari eslehi dakiokeen zenbatekoa eskatzailearen baliabideen arabera eta bizikidetzako gainerako kideen diru-sarreraren arabera ezartzen den ehuneko aplikatzearen emaitza izango da. Ehuneko hori artikuluko honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko kopuruaren gainean aplikatuko da, edo benetako gastuaren kopuruaren gainean, kopuru hori kontzeptuko gehieneko kopurua baino txikiagoa bada, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko Dekretuaren 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. I. eranskinean jasota daude kalkulua egiteko behar diren bi taulak: populazio orokorrarena eta pentsiodunei aplikatzeko.

4.– Kasu partikular bakoitzean aplikatu daitezkeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; kasu horretan, eskatzaile guztien eskaerari modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboa murriztu beharko da kontzeptu bakoitzarengatik eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

3. artikulua.– Eskaera-pilaketa eta GLLak eska ditzaketen BUen gehieneko kopurua.

Helbide berean bizi diren bi BUK eskatu ahalko dituzte gehienez Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak, GLLak barne. Beraz, zenbaketa hori egiteko, sistemako edozein prestazio kobratzeko eratutako BUak hartuko dira kontuan: DSBE, EPO edo GLLak berak, eta lehentasuna izango dute eskubidezko prestazioak, DSBE eta EPO jasotzeko.

GLLren bi eskaera baino gehiago pilatuz gero, eskaeraren antzinatearen arabera erantzun zaila, gizarte-zerbitzuek txosten sozialaren bidez bestelako irizpiderik finkatu ezean.

#### 4. artikulua.– Kredituak banatzeko irizpideak.

1.– Honako parametro hauen arabera finkatuko dira 2022an gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko esleitutako kredituak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean banatzeko irizpideak, zeinak beharrian-adierazleei jarraituz ezartzekoak baitira:

– 2021eko urriaren 31n, udalerrian dagoen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten unitateen kopurua:

– Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo bestelako prestaziorik jaso ez eta 2021eko urriaren 31ra arte udalerrian Lanbiden izena eman duten pertsonen kopurua.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 400 biztanle baino gutxiagoko udalerriei udalerrri horiei guztira legokiekeen zenbatekoaren batz bestekoaren zenbateko baliokidea bermatzen zaie gizarte-larrialdietarako laguntzen programa egikaritzeko.

#### 5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzak 2022ko ekitaldian gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko zenbat diru erabil dezakeen ezarri da aurrekontuetan. Agindu honen II. eranskinean ageri dira zenbatekoak.

#### 6. artikulua.– Udalaz gaindiko bestelako erakundeen bidez banatzea.

Udalek foru-aldundira jo badute edo partzuergoen, mankomunitateen edo beste formula batzuen bidez kudeaketa partekatzeko bidea hartu badute gizarte-larrialdiko laguntzetarako baliabide ekonomikoa banatzeko, Berdintasun, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi beharko diote, udal bakoitzari esleitutako kopuruak udalaz gaindiko erakunde horietara transferitzeko.

### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzeko Dekretuaren 33. artikuluan aipatzen diren datuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema araututa eta funtzionamenduan ez dagoen artean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan bidaliko dira, zeinaren bidez argitaratu baitzen gizarte-larrialdietarako laguntzen eskabide-eredu berria eta arautu baitzen prestazio horiei buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzeko modua (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.); bestela, aipatutako aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bidez bidaliko dira, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak zehazten duen moduan, datuen edukari buruz aipatutako 33. artikuluan eskatzen diren eskakizunak beteta, betiere.

### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 23a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2022ko martxoaren 7a, astelehena

## I. ERANSKINA

KONTZEPTU BAKOITZEKO GEHIENEO ZENBATEKOAREN EHUNEO  
APLIKAGARRIA

Orokorra 2022			
Urteko diru-sarreraren muga, BUren neurriaren arabera			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide-kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	782,15	1.004,36	1.111,02
100	9.385,80	12.052,32	13.332,24
99	9.479,66	12.172,84	13.465,56
98	9.573,52	12.293,37	13.598,88
97	9.667,37	12.413,89	13.732,21
96	9.761,23	12.534,41	13.865,53
95	9.855,09	12.654,94	13.998,85
94	9.948,95	12.775,46	14.132,17
93	10.042,81	12.895,98	14.265,50
92	10.136,66	13.016,51	14.398,82
91	10.230,52	13.137,03	14.532,14
90	10.324,38	13.257,55	14.665,46
89	10.418,24	13.378,08	14.798,79
88	10.512,10	13.498,60	14.932,11
87	10.605,95	13.619,12	15.065,43
86	10.699,81	13.739,64	15.198,75
85	10.793,67	13.860,17	15.332,08
84	10.887,53	13.980,69	15.465,40
83	10.981,39	14.101,21	15.598,72
82	11.075,24	14.221,74	15.732,04
81	11.169,10	14.342,26	15.865,37
80	11.262,96	14.462,78	15.998,69
79	11.356,82	14.583,31	16.132,01
78	11.450,68	14.703,83	16.265,33
77	11.544,53	14.824,35	16.398,66
76	11.638,39	14.944,88	16.531,98
75	11.732,25	15.065,40	16.665,30
74	11.826,11	15.185,92	16.798,62
73	11.919,97	15.306,45	16.931,94
72	12.013,82	15.426,97	17.065,27
71	12.107,68	15.547,49	17.198,59
70	12.201,54	15.668,02	17.331,91
69	12.295,40	15.788,54	17.465,23
68	12.389,26	15.909,06	17.598,56
67	12.483,11	16.029,59	17.731,88
66	12.576,97	16.150,11	17.865,20
65	12.670,83	16.270,63	17.998,52
64	12.764,69	16.391,16	18.131,85
63	12.858,55	16.511,68	18.265,17
62	12.952,40	16.632,20	18.398,49

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Orokorra 2022			
Urteko diru-sarreraren muga, BUren neurriaren arabera			
Aplika daitekeen gehieneko %	BUko kide-kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
61	13.046,26	16.752,72	18.531,81
60	13.140,12	16.873,25	18.665,14
59	13.233,98	16.993,77	18.798,46
58	13.327,84	17.114,29	18.931,78
57	13.421,69	17.234,82	19.065,10
56	13.515,55	17.355,34	19.198,43
55	13.609,41	17.475,86	19.331,75
54	13.703,27	17.596,39	19.465,07
53	13.797,13	17.716,91	19.598,39
52	13.890,98	17.837,43	19.731,72
51	13.984,84	17.957,96	19.865,04
50	14.078,70	18.078,48	19.998,36

Pentsiodunak 2022			
Urteko diru-sarreraren muga, BUaren neurriaren arabera			
Aplika daitekeen gehieneko %	Kide-kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
	897,40	1.121,75	1.211,50
100	10.768,80	13.461,00	14.538,00
99	10.876,49	13.595,61	14.683,38
98	10.984,18	13.730,22	14.828,76
97	11.091,86	13.864,83	14.974,14
96	11.199,55	13.999,44	15.119,52
95	11.307,24	14.134,05	15.264,90
94	11.414,93	14.268,66	15.410,28
93	11.522,62	14.403,27	15.555,66
92	11.630,30	14.537,88	15.701,04
91	11.737,99	14.672,49	15.846,42
90	11.845,68	14.807,10	15.991,80
89	11.953,37	14.941,71	16.137,18
88	12.061,06	15.076,32	16.282,56
87	12.168,74	15.210,93	16.427,94
86	12.276,43	15.345,54	16.573,32
85	12.384,12	15.480,15	16.718,70
84	12.491,81	15.614,76	16.864,08
83	12.599,50	15.749,37	17.009,46
82	12.707,18	15.883,98	17.154,84
81	12.814,87	16.018,59	17.300,22
80	12.922,56	16.153,20	17.445,60
79	13.030,25	16.287,81	17.590,98
78	13.137,94	16.422,42	17.736,36
77	13.245,62	16.557,03	17.881,74
76	13.353,31	16.691,64	18.027,12



Pentsiodunak 2022			
Urteko diru-sarreraren muga, BUaren neurriaren arabera			
Aplika daitekeen gehieneko %	Kide-kopurua		
	1	2	3 edo gehiago
75	13.461,00	16.826,25	18.172,50
74	13.568,69	16.960,86	18.317,88
73	13.676,38	17.095,47	18.463,26
72	13.784,06	17.230,08	18.608,64
71	13.891,75	17.364,69	18.754,02
70	13.999,44	17.499,30	18.899,40
69	14.107,13	17.633,91	19.044,78
68	14.214,82	17.768,52	19.190,16
67	14.322,50	17.903,13	19.335,54
66	14.430,19	18.037,74	19.480,92
65	14.537,88	18.172,35	19.626,30
64	14.645,57	18.306,96	19.771,68
63	14.753,26	18.441,57	19.917,06
62	14.860,94	18.576,18	20.062,44
61	14.968,63	18.710,79	20.207,82
60	15.076,32	18.845,40	20.353,20
59	15.184,01	18.980,01	20.498,58
58	15.291,70	19.114,62	20.643,96
57	15.399,38	19.249,23	20.789,34
56	15.507,07	19.383,84	20.934,72
55	15.614,76	19.518,45	21.080,10
54	15.722,45	19.653,06	21.225,48
53	15.830,14	19.787,67	21.370,86
52	15.937,82	19.922,28	21.516,24
51	16.045,51	20.056,89	21.661,62
50	16.153,20	20.191,50	21.807,00

#### I. eranskineko taulen azalpena:

– Zutabe bakoitza bizikidetzaren unitatearen kide-kopuruari dagokio: bat, bi, eta hiru edo pertsona gehiago.

– Hiru zenbaki horietako bakoitzaren pean, diru-sarrerarik gabeko bizikidetzaren unitate bati dagokion DSBEren hileko diru-kopurua dago jasota.

– Hurrengo lerroan, DSBEren urteko diru-kopurua.

– Hurrengo lerroetan, urteko zenbatekoaren kopuru progresiboa jasotzen da, % 101, % 102... % 150era arte. Azken horrek gizarte-larrialdiko laguntzak jasotzeko eskubidearen muga adierazten du.

– Azkenik, hasierako zutabeak egoera bakoitzean eman daitekeen GLLaren kontzeptu bakoitzari dagokion gehieneko zenbatekoaren portzentajea adierazten du .



2022ko martxoaren 7a, astelehena

## II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO ETA UDAL BAKOITZARI  
DAGOKION 2022RAKO AURREKONTU-MUGA

## ARABA

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Agurain	109.829
Dulantzi	48.325
Amurrio	170.601
Gesaltza	2.213
Aramaio	10.983
Armiñon	2.213
Arraia-Maeztu	4.027
Arratzua-Ubarrundia	5.491
Artziniega	31.118
Asparrena	25.261
Aiara	30.386
Mañueta	2.213
Barrundia	7.322
Berantevilla	4.393
Bernedo	4.027
Kanpezu	12.081
Burgelu	4.759
Eltziego	11.715
Bilar	2.563
Erriberagoitia	7.688
Harana	2.213
Iruña Oka	53.450
Iruraitz-Gauna	3.661
Kripan	2.213
Koartango	5.125
Bastida	32.583
Lagran	2.213
Guardia	17.939
Lantziego	18.671
Lantaran	8.786
Lapuebla de Labarca	15.742
Laudio	299.100
Legutio	34.779
Leza	3.661
Moreda Araba	2.563
Nabaridas	2.213
Okondo	14.644
Oion	85.300
Urizarra	2.213

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Erriberabeitia	16.840
Samaniego	2.563
Donemiliaga	6.590
Urkabustaiz	25.261
Gaubea	16.474
Eskuernaga	2.213
Vitoria-Gasteiz	4.803.912
Iekora	2.213
Zalduondo	2.213
Zanbrana	6.956
Zigoitia	10.983
Zuia	17.573
Araba, guztira	6.018.068

## GIPUZKOA

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Abaltzisketa	2.213
Aduna	2.213
Aia	16.108
Aizarnazabal	10.983
Albiztur	2.213
Alegia	23.430
Alkiza	3.295
Altzaga	2.213
Altzo	2.929
Amezketeta	13.179
Andoain	196.227
Anoeta	26.359
Antzuola	18.671
Arama	2.213
Aretxabaleta	71.023
Arrasate	293.975
Asteasu	13.179
Astigarraga	67.728
Ataun	12.081
Azkoitia	136.188
Azpeitia	173.896
Baliarrain	2.213
Beasain	138.018
Beizama	2.213
Belauntza	2.213
Berastegi	4.027
Bergara	164.377
Berrobi	8.420

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Bidania-Goiatz	5.125
Deba	44.298
Donostia	2.409.644
Eibar	484.345
Elduain	2.213
Elgeta	8.420
Elgoibar	154.126
Errenteria	621.631
Errezil	5.125
Eskoriatza	40.271
Ezkio-Itsaso	6.224
Gabiria	4.027
Gaintza	2.213
Gaztelu	2.213
Getaria	22.332
Hernani	287.019
Hernialde	2.563
Hondarribia	160.350
Ibarra	49.057
Idiazabal	13.912
Ikaztegieta	8.054
Irun	1.032.391
Irura	20.867
Itsasondo	11.715
Larraul	2.563
Lasarte-Oria	226.613
Lazkao	47.959
Leaburu	5.858
Legazpi	86.033
Legorreta	15.376
Leintz-Gatzaga	2.213
Lezo	82.006
Lizartza	6.590
Mendaro	24.895
Mutiloa	2.563
Mutriku	67.728
Oiartzun	110.561
Olaberria	8.786
Oñati	94.453
Ordizia	128.500
Orendain	2.213
Orexa	2.213
Orio	69.558
Ormaiztegi	14.278
Pasaia	314.843

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Segura	9.885
Soraluze	80.541
Tolosa	235.400
Urnieta	69.558
Urretxu	90.060
Usurbil	65.531
Villabona	95.917
Zaldibia	17.573
Zarautz	215.997
Zegama	10.617
Zerain	2.213
Zestoa	50.887
Zizurkil	34.047
Zumaia	98.114
Zumarraga	157.421
Gipuzkoa, guztira	9.359.495

## BIZKAIA

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Abadiño	106.168
Abanto Zierbena	183.780
Ajangiz	2.213
Alonsotegi	71.389
Zornotza	245.650
Amoroto	2.929
Arakaldo	2.929
Arantzazu	4.759
Areatza	14.278
Arrankudiaga	10.617
Arratzu	2.213
Arrieta	6.224
Arrigorriaga	198.058
Artea	7.322
Artzentales	13.546
Atxondo	9.885
Aulesti	5.491
Bakio	43.565
Balmaseda	193.299
Barakaldo	1.975.454
Barrika	21.600
Basauri	854.468
Bedia	17.207
Berango	88.961
Bermeo	297.636

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Berriatua	9.518
Berriz	58.941
Bilbo	8.022.628
Busturia	24.895
Derio	68.460
Dima	16.474
Durango	407.465
Ea	10.617
Elantxobe	7.322
Elorrio	68.460
Erandio	459.084
Ereño	2.213
Ermua	265.786
Errigoiti	4.759
Etxebarri	149.367
Etxebarria	8.420
Forua	9.518
Fruiz	6.956
Galdakao	354.381
Galdames	12.447
Gamiz-Fika	14.644
Garai	2.213
Gatika	15.742
Gautegiz Arteaga	8.054
Gernika-Lumo	228.444
Getxo	1.022.506
Gizaburuaga	2.213
Gordexola	27.091
Gorliz	91.890
Gueñes	137.286
Ibarrangelu	6.956
Igorre	72.121
Ispaster	5.491
Iurreta	56.745
Izurtza	3.661
Karrantza Harana	57.477
Kortezubi	2.563
Lanestosa	3.661
Larrabetzu	19.769
Laukiz	11.715
Leioa	514.731
Lekeitio	86.399
Lemoa	54.182
Lemoiz	16.474
Lezama	25.993

2022ko martxoaren 7a, astelehena

Herria	2022ko diru-esleipena (eurotan)
Loiu	23.796
Mallabia	12.081
Mañaria	4.393
Markina-Xemein	58.209
Maruri-Jatabe	12.081
Meñaka	2.929
Mendata	3.661
Mendexa	2.929
Morga	5.491
Mundaka	18.305
Mungia	262.125
Munitibar - Arbatzegi Gerrikaitz-	4.759
Murueta	2.929
Muskiz	138.018
Muxika	13.912
Nabarniz	3.661
Ondarroa	115.320
Orozko	34.779
Ortuella	181.950
Otxandio	15.742
Plentzia	71.755
Portugalete	879.729
Santurtzi	1.098.653
Sestao	741.710
Sondika	62.602
Sopela	195.860
Sopuerta	31.484
Sukarrieta	4.759
Turtzioz	10.251
Ubide	2.929
Ugao	64.067
Urduliz	73.951
Urduña	86.399
Trapagaran	204.647
Zaldibar	47.591
Zalla	169.501
Zamudio	45.030
Zaratamo	27.091
Zeanuri	10.617
Zeberio	16.840
Zierbena	20.867
Ziortza-Bolibar	3.661
Bizkaia, guztira	21.622.437
EAE, guztira	37.000.000